

Bezero segmentua

Gure enpresak bezeroak definitzeko orduan, 16 eta 25 adinaren arteko jendea kontuan hartuko ditugu. Alde batetik, gure xedea jende gazteak beraien denbora librean zer edo zer egiteko aukera emateko; eta bestetik, gure herrian eta inguruko besteetan mota honetako ekintzak prestatzen ez direnez, guk aukera hau eman nahi izan diegu zerbait ezberdina probatzeko.

Adinaz aparte, adin handikoak garrantzitsua izango da kotxea eskuragarri izatea gure zinema era eroso batean gozatzeko. Adin txikiko gazteei, guk emango diegu aukera kotxe bat alokairuan hartzeko eta modu berdinean disfrutatu ahal izateko. Horregatik, adin handiko gazteak kotxea baldin badute, egokiena izango zen haiena erabiltzea eta ez guk eskaintzen ditugunak, erraztasun hori ez daukatenentzako fabore moduan egiten.



Gure bezeroak hobeto ezagutzeko, galdera- sorta bat partekatu diegu gure herriko gazteei eta ingurukoei. Bertan, zer motatako filmak atsegin dituzte, haien iritziri eta haien errenta erabilgarriari buruzko galderak azaltzen dira. Horrela, gure eskaintza moldatzeko aukera ematen digute haien iritzia gogoan hartuta. Bezeroak ezagutu: https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdk14CeqYI-O6yrJsfv99rn1K2YC29FPcdpvO02-4TIDgqLIg/viewform?usp=sf_link



Proiektua aurrera joaten den heinean, bezeroak ezagutzen jarraitzeko postontzi bat jarriko dugu gure negozioaren txoko batean haien gustoko dituzten filmak guri jakinarazteko eta hurrengo asteetan filma hori edo antzeko bat eskaintzeko. Astero pelikulak aldatzen joango gara eta tematika ezberdinetako filmak ipiniko ditugu, horrela mundu guztiari gustatzen zaizkien filmak jartzeko.



Janariari dagokionez, lehen aipatutako inkestan galdera bat azaltzen da janariari jarraituz. Honekin, jakin nahi dugu zenbat gazteek janari berezia behar duten, hala nola, glutenari intolerantzia. Era honetan, gure karabanan haiei emateko janaria eskuragarria edukitzeko eta berdin jan ahal izateko.